




Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren
Kontrol eta Gardentasun Batzordea
Comisión de Control y Transparencia de la
Policía del País Vasco

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEAREN

2021/2022


JARDUERA-MEMORIA





Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea	3
3. EAEPKGBren jarduera (2021 eta 2022 urteak)	9
4. Lehen bi urtekoari buruzko hausnarketa kritikoa	15
5. Ondorio gisa: Bigarren bi urtekorako bost helburu	21





1. Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzorde honek (EAEPKGB) jardueren bi urteko memoria hau landu du Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuak 21.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

EAEPKGBk 2021eko urtarrilaren 26an eratu zenetik 2022ko abenduaren 31ra bitartean egindako jardueren memoria honek hasieran instituzio horren izaerari, ezaugarriei eta eginkizunei buruzko azterketa bat jasotzen du. Ondoren, egindako jarduerak azaltzen ditu eta, horren ostean, egokia iruditu zaigu Eusko Legebiltzarrera EAEPKGB osatzen dugunok honi buruz egindako hausnarketa ere helaraztea: bi urteko honetan izandako esperientzia eta etorkizunean garatzeko ireki diren aurreikuspenak.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea

2.1 EAEPKGBren izaera juridikoa

EAEPKGB Eusko Legebiltzarrak onartutako 7/2019 Legearen bidez sortu zen. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko 4/1992 Legea (EAEPL) bosgarren aldiz aldatzen du.


7/2019 Legearen Zioen Azalpenean azaltzen den bezala, EAEPLren bosgarren aldaketa horretan, zenbait eraberritze partzial egiten dira, herritarrei –zeinei kontuak eman behar baitzaizkie– zerbitzua ematearekin lotutako kontuak indartzeko joera dutenak, oro har.

Zerbitzu polizialek gizarte ireki batean duten txertaketa sendotu nahi denez, 7/2019 Legearen barruan, Segurtasuna Administrazioa izeneko I. Tituluan (EAEPL), “Kontrol eta Gardentasun Mekanismoak” izeneko III. Kapituluak dago eta hor bi organo hauek arautzen dira:

- a) Ekinbide-Segurtasun publikoko sistema hobetzeko ekimen herritarren bulegoa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko 15/2012 Legearen 16. artikuluan sortu eta araututakoa.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea.

Legegileak EAEPLren 17.1 artikuluan EAEPKGBren definizio labur hau ematen du:

“1. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzen da, kide anitzeko organo gisa, zeinak autonomia funtzionala izango baitu polizia-erakundeari eta Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena daukan sailari begira. Horrela, legitimitatea eta herritarren konfiantza indartu nahi dira, hau da, polizia-jardunaren gaineko kontrolen neutraltasunarekiko eta objektibotasunarekiko konfiantza”.





Batzorde horren izaera juridikoari dagokionez, argi dago EAEPKGB Euskal Sektore Publikoaren barruan dagoela, Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legearen 4.4 artikuluko b) eta d) ezaugarriak dituelako:

“4. Nolanahi ere, euskal sektore publikoaren barruan daude honako ezaugarrietako bat daukaten entitate guztiak:

(...)

b) Artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo entitateek izendatzea, zuzenean, entitateko lehendakaria edo kide bakarreko ordezkari-organoa.

(...)

d) Kide anitzeko gobernu- edo administrazio-organoa edukita, artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo entitateek izendatzea kide horietako gehienak.”


EAEPKGB Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren barruan dagoenez, aipatutako 3/2022 Legearen 4.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, Batzorde horrek egon beharko du *“lege honetan aipatzen diren gaiak osatutako legezketasun-blokearen mende, zeina entitatean parte hartzen duten administrazio publikoek eransten baitiote, halako moldean, non entitatearen sortze-arauek, estatutuek edo antolaketa- eta funtzionamendu-arauek eta haren partaide diren administrazioek ezarritako hitzarmenak xedatutako terminoetan beteko duten”*.

Lege horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Antolaketa Instituzionala izeneko II. Tituluan egiten den sailkapenari begiratuta, ematen du EAEPKGB 10. artikuluko administrazio-agintaritza independentetzat har daitekeela.

“1. Salbuespen gisa, erabakitze-funtzioak sortu ahal izango dira, eta funtzio horiek esleitu ahal izango zaizkie (...) kide anitzeko organoei, (...). Aipatutako entitate horiek Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruko administrazio independentetzat joko dira, beraien zereginak betetzeko independentzia edo autonomia berezia behar dutenean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokor edo instituzionalarekiko edo, hala badagokio, hura osatzen duten entitateekiko.”

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 109. artikulua “Estatu mailako administrazio-agintaritza independenteentzat” ezartzen duen araubidea ez da Euskadiko araudiak Euskal Autonomia Erkidegoaren Sektore Publikoaren barruko administrazio-agintaritza independenteentzat ezartzen duena bezalakoa; izan ere, Euskadiko araudiaren arabera, agintaritza horiek ez dute zertan zuzenbide publikoko entitateak izan, nortasun juridiko propioa dutenak, eta jarduera zehatz batzuk “kanpotik gainbegiratzeko” beren eginkizunak ez dira legez mugatzen arlo ekonomikoko sektore edo jardueratarara.

Hori guztia gorabehera, aipatu behar da - geroago EAEPKGBren etorkizuneko aurreikuspenei buruz esango denagatik - EAEPLk ezarritako araudia ez dagoela egokituta administrazio-





agintaritza independenteen sortze-arauak eskatzen duenera (Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legearen 10.3 artikulua, bereziki, b) eta c) atalak):

“3. Horrelako kasuetan, sortze-arauak lege-mailakoa izan beharko du eta eduki hau bildu beharko du nahitaez:

a) Azalpena: zergatik behar den, eta zer independentzia funtzional edo autonomia ematen zaion. Halaber, ziurtatu beharko da esleitutako funtzioak ez daudela bikoiztuta.

b) Nola osatzen diren erabakitze-funtzioak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartzeaz arduratzen diren organoak eta zer irizpide erabiltzen den organo horiek izendatzeko. Horretarako, bermatu egin beharko da organo horietako kideak independenteak eta adituak direla eta funtzioak betetzeko lanbide-gaitasuna zein kaudimen teknikoa dutela; era berean, bermatu beharko da haien bateraezintasunen eta ordezkotzen araubidea, eta gutxienez bi urtean ez direla kargutik mugituko.

c) Zer erabakitze-funtzio agintzen zaien, eta nola hartzen diren erabakitze-funtzioak jasotzen dituzten erabakiak, kolegiatasunaren edo espezialitate teknikoaren printzipioaren arabera.”

Hortaz, ondorioztatu ahal da, izaera juridikoari dagokionez EAEPKGB administrazio-agintaritza independentea dela:


- 1) Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen bidez sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoaren Sektore Publikoan integratzeko; herritarrek polizia-jardunaren gaineko barruko kontrolen neutraltasunean eta objektibotasunean daukaten konfiantza eta legitimitatea indartzeko helburuarekin.
- 2) Legez kide anitzeko organo gisa eratu zen, polizia-jardunaren gaineko barruko kontrolen funtzionamendua kanpotik gainbegiratzeko, nortasun juridiko propiorik gabe eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailarekiko autonomia funtzionalarekin.
- 3) Hori sortzeko araua, EAEPLren 17. eta 21. artikuluen artekoa, Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legearen 10.3 artikulua ezarritakora egokitu behar da.

2.2 Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen eginkizunak eta osaera

2.2.1 Eginkizunak

EAEPLren 17.2 artikulua EAEPKGBri bi eginkizun desberdin ezartzen dizkio esku hartzea eragiten duten kausa eta jokatzeko modua zein diren. Zehazki, hauek:

- a) EAEPKGBk **ofizioz eta nahitaez** aztertzen ditu intzidenteak, baldin eta poliziaren esku hartze edo operatibo baten testuinguruan edo zaintza polizial bat bitartean pertsona bat hiltzen bada





edo larriki lesionatuta suertatzen bada. Horretarako, Ertzaintzak edo Udaltzaingoak, tartean daudenek, nahitaez eta berehala jakinarazi beharko diote EAEPKGBri zer gertatu den.

b) Horrez gain, **Eusko Jaurlaritzaren segurtasun arloko organo eskudunaren titularrak edo dagokion udal agintaritzak edo Arartekoak** modu formalean eskatuta, EAEPKGBk Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren barruko jokabideak edo praktikak aztertu behar ditu, baldin eta horiekin lotuta eskubideak urratzeagatik kearen bat jaso bada, edo horiek kezka handia sortzen duten jarduketa polizialekin lotuta badaude, herritarren konfiantza kaltetu dezaketelako.

c) Bi kasu horietan, EAEPKGBko kideei dagokie egin beharreko ikerketak egitea, horiei buruzko txostenak egiteko; eta txosten horien barruan agertuko dira, hala badagokio, jardunbide onen gomendioa, poliziaren kode deontologikoarekin bat ez datozen edo eskubideak urratzen dituzten jokabide-patroi edo jardunbide errepikakorren identifikazioa, eta neurri zuzentzaileen edo prebentziozkoen proposamena.

Batzordeari esleitzen zaizkion eginkizunak behar bezala bete ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen Testu Bateginak EAEPKGBko kideei, ikerketetan zehar, bi eskumen garrantzitsu ematen dizkie:


1) **Polizia-instalazioetarako sarbide askea eta mugagabea** izango dutela bermatzen zaie, edonoiz eta aurretik ezer jakinarazi beharrik gabe; baita polizia-etxeetako datu, dokumentu, datu-base eta bideo- eta audio-grabaketetarako sarbidea ere; eta edozein polizia-fitxategi lortu ahal izango dute.

2) Poliziako langile guztiak **ikerketan laguntzera behartuta** daude; horretarako, zitazioetara joan beharko dute, eta behar diren datuak eta informazioa eman. Eginbide penaletako langile ikertuak ez daude behartuta Batzordeari laguntzera.

Aurrekoarekin lotuta, legegileak ezartzen du EAEPKGBk ikertzen dituen egitateak lotuta badaude uneko ikerketa penal edo diziplinazkoren batekin, ikertu ahal izango duela, baina ikerketa horri loturik ez dauden edo ikerketa hori kaltetzen ez duten alderdiak soilik.

Ondorioz, EAEPKGBk ikertzen dituen egitateak uneko ikerketa penalen batekoak badira, agintaritza judicial eskudunari jakinaraziko dio Batzordeak berak, interferentziarik ez izateko, ez ikerketa penalean, ez jardunen erreserban.

Azkenik, Batzordeak, ikertzen dabilen bitartean, irizten badu ez-zilegitasun penal edo administratiboren bat egon daitekeela, agintaritza eskudunari jakinaraziko dio.





2.2.2 Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen osaera

EAEPKGB batzordeburu batez eta bost bokalez osatuta dago.

Gobernu Kontseiluak izendatzen ditu sei kide horiek, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluak proposatuta, eta emakumeen eta gizonen presentzia paritarioaren printzipioa aplikatuta. Hautatuek prestigio aitortua, sinesgarritasuna eta esperientzia izan beharko dute segurtasun publikoaren arloan, zuzenbidean, soziologian, medikuntzan, psikologian, etikan eta antzeko arloetan.

Batzordeburua Batzordearen osoko bilkurak hautatuko du.

EAEPKGBko kideen herenak (2) **Eusko Autonomia Erkidegoko poliziaren eskaletan eta kategorietan** egon diren edo orain dauden pertsonen artetik aukeratuko dira, eta, gutxienez, hamabost urteko esperientzia izan beharko dute kidegoan; kideen beste heren bat (2), berriz, aipatutako arloetan **prestigio akademiko** aitortua duten langileen artetik aukeratuko da; kideen gainerako herenak (2) aipatutako ezagutza-arloetan **profesional ez akademikoak** direnen artetik aukeratuko dira.

Kide guztiak bost urterako izendatuko dira, izendapena argitaratzen den egunetik aurrera. Izendapen hori bitan baino ezin izango da berritu, iraupen bereko denboraldietarako. Batzordeko kideek egoera hauetan baino ez dute kargua utziko: hilez gero; agintaldia amaituz gero; karguari idatziz uko eginez gero; abstentzio- eta isiltasun-eginbeharren ez-betetze larria izanez gero, Batzordeko gehienek hala iritzita; epai irmo baten bidezko ezgaitze-deklarazioa izanez gero, edo dolozko delituagatik kondena izanez gero epai irmo baten bidez.

EAEPKGBko kideek ez dute inolako lansaririk jasoko euren lanen truke. Nolanahi ere, zerbitzu-arrazoiengatik kalte-ordainak kobratu ahal izango dituzte.


Gaur egun, hauek dira EAEPKGBko kideak:

Estefanía Ocariz Passevante. EAEPKGBko bokala. Psikologian doktorea. Psikologia Juridikoko Masterra. Gazte delinkuentzian eta adingabeen zuzenbide penaleko unibertsitateko aditua. Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea.

Miren Ortubay Fuentes. EAEPKGBko bokala. Zuzenbide Penalean doktorea. Kriminologian diplomatua. Arartekoko aholkulari juridikoa (11 urtez). EHuko Zuzenbide penaleko irakasle titularra.

José Antonio Nieto Antón. EAEPKGBko bokala. Ertzaintzaren 3. promozioa. 35 urtez zerbitzuan. Getxoko Ertzain-etxe eta Ondarroako Ertzain-etxe agente lehena. Bilboko Ertzain-etxe Babes Zibileko komisarioa. Bilboko Ertzain-etxe operazioburua. Bilboko Ertzain-etxe patruilaburua. Donostiako Ertzain-etxe ofizialordea.

Ricardo Egiguren Mendieta. EAEPKGBko bokala. 38 urtez Udaltzaingoan zerbitzuan. Gizarte-graduata. Euskadiko Udaltzainburuen elkarteko presidentea. Leioako udaltzaina. Leioako





Udaltzaingoko agente lehena. Leioako Udaltzaingoko udaltzainburua. Leioako Udaltzaingoko ofizialordea. Portugaleteko Udaltzaingoko sarjentua.

Francisco Javier Hernáez Manrique. EAEPKGBko bokala. Abokatu, Harreman industrialetako nazioarteko aditua. Sunion Calderón García Moreno abokatu-bulegoaren bazkide fundatzailea eta kidea.

Juan Luis Ibarra Robles. EAEPKGBko batzordeburua. Zuzenbidean doktorea. Unibertsitateko irakasle titularra, administrazio-zuzenbidearen eta administrazio-zientzien arloan. Magistratu erretiratua. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidente ohia.

2.3 Sorrera eta martxan jartzeko prozesua


EAEPKGB formalki 2021eko urtarrilaren 26an eratu zen, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusian (Lakua). Hasieran batean Batzordea osatu zuten kideak ezin izan ziren aurretik hausnarketa-prozesu bat egiteko elkarrekin eta Segurtasun Saileko solaskideekin komunikatu, kide izaten hasi ziren instituzioaren helburuei eta eginkizunei buruz eta eskura jar zekizkiekeen bitartekoei eta giza baliabideei buruz hausnartzeko. Gainera, Batzordea eratzeko lehen bileran bertan eskaini zitzaion Batzordeari Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren titularrarekiko eta idazkariarekiko solaskidetza, eta lehen bilera horretan ere eman zitzaion Batzordeari ebatzi beharreko lehen espedienteari buruzko dokumentazioa, Getxoko Udalak sustatutako espedientea.

Batzordeak sorrera-inguruabar berezi horien eraginpean eman zion hasiera bere jardunari. Inguruabar horiek ezagutza behar bezala transmititzea eragotzi zuten; eta ondorioz, kideek hutsetik hasi behar izan zuten lanean, handik aurrera arduradunak izango ziren jarduera instituzional horretan.

Hasierako zailtasun horiek gainditzen joan dira bi bide hauetatik:

- a) Alde batetik, Lehenengo Lehendakariorde eta Segurtasuneko Sailburuaren Kabinetearekin harreman instituzionalerako bide arin eta egonkor bat ezarri da, Batzordeak modu autonomoan funtzionatzeko baliabide operatiboak bermatze aldera.
- b) Beste alde batetik, Batzordearen berezko jardunaren bidez, jardun hori sistematizatzea eta eraginkor bihurtzea bideratutakoa. Horretarako, Batzordeak funtzionamendu-arau batzuk ezarri ditu, esaterako, bileren egutegi bat, oinarrizkoa bada ere nahitaezkoa den kode deontologiko bat, kideen arteko komunikazio-mekanismo egoki batzuk, etab. Jarduera hori ez da izan Segurtasun Saileko inongo adierazpenen edo esku hartzeen ondorio.

Baliabide materialei dagokienez, esan behar da hasierako hilabeteetan gabeziak handiak izan zirela, hasiera batean ez baitzitzaien EAEPKGBri oinarrizko bulego-materialik eman. Baliabideak falta zirela eta, hainbat eskaera egin ziren, esaterako, posta elektronikoko korporatiboko helbide bat eta





ordenagailu eramangarri bat; izan ere, Batzordeak bere eskumenen esparruan kudeatu behar zuen informazioa isilpean gorde behar zen.

Eskaera horrek 2021eko udan emaitzak eman zituen, EAEPKGBko kideei ordenagailu eramangarri bana eta posta-kontu pertsonalizatuak eman zitzaizkielako. Era berean, sinadura digital propioa beharrezkoa zela behin eta berriz berretsi ondoren, 2023ko urtarrilean txartel bat gaitu da horretarako. Sinadura pertsonalen bidez identifikatzea bidegabea denez, eta, are gehiago, ezegokia ere bai, baliabide hori guztiz nahitaezkoa zen Batzordearen izenean edozein dokumentu ofizial sinatu ahal izateko.


Jakin badakigu horrelako batzorde bat sortzen hastean espero izatekoa dela aurretik deskribatutakoak bezalako kontuak gertatzea. Hala ere, ezin da aipatu gabe utzi EAEPKGBko kide guztien artean harmonia pertsonal bikaina dagoela, baita kasuak ikuspegi eta perspektiba desberdinetatik aztertzean sinergia profesional emankorrek sortu direla ere. Halaber, nabarmendu behar da denbora honetan koordinazioa bikaina izan dela, gai bereziki korapilatsuei zintzotasunez heldu zaiela eta Batzordeari aztertze, baloratzeko eta iritzi teknikoak emateko helarazi zaizkion gai guztiak ahalik eta modu zorrotzenez, arinenez eta eraginkorrenean aurrera eramateko interes handia jarri dela. Horrez gain aipatu behar da Batzordeko kideek dedikazio handia eskaini dutela, idazkiak eta txostenak lantzeko egin beharreko guztiak egiteko beren berezko baliabideak erabili dituzte eta. EAEPKGBren motibazioa beti izan da, gaur egun ere bada, eta izango da Euskadiko gizarteari zerbitzua ematea, gizarte horrek polizia demokratikoagoa, gardenagoa eta giza eskubideak errespetatzen dituen izateko asmo legitimoa baitauka.

3. EAEPKGBren jarduera (2021 eta 2022 urteak)

3.1 Egindako bilerak

2021. urtean bost bilera egin ziren:

- **2021.01.26.** EAEPKGB eratzeko bilera. Bilera horretan Joaquín Giménez García jauna, bokala, Auzitegi Goreneko magistratu emeritua, batzordeburu izendatua izan zen. Batzordeak jarduteko lehen eskaera ere jaso zuen, Getxoko Udaleko Herritarren Segurtasuneko zinegotziak egindakoa.
- **2021.03.03.** Francisco Javier Hernáez Manrique jauna Batzordeko idazkari izendatua izan zen. Batzordearen funtzionamendu-irizpideak aztertu ziren. 1/2022 espedientea aztertu zen eta horren gaineko erabakia hartu zen.
- **2021.04.12.** Batzorderako logo-proposamena aztertu zen eta horri buruzko erabakia hartu zen. Web-orrian zuzenketak egin beharra zegoela jakinaraztea onartu zen. Barruko funtzionamenduari buruzko hainbat alderdi ere landu ziren. 2/2021 eta 3/2021 espedienteak aztertu eta horiei buruzko erabakia hartu zen.





- **2021.05.20.** Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak Batzordean agerraldia egin zuen, Batzordeak eskatutako baliabide materialen eta jardueren egoerari buruz informatzeko. 4/2021 espedientea aztertu zen eta horren gaineko erabakia hartu zen.
- **2021.07.01.** Informatikako langileek material informatikoa, ordenagailuak eta beren programak, ekarri zituzten eta batzordekideentzat sortutako posta-kontuetara sartzeko datuak eman zituzten. 5/2021 espedientea aztertu zen eta horren gaineko erabakia hartu zen.

2022. urtean bederatzi bilera egin dira:

- **2022.01.12.** Joaquín Giménez García jaunak, batzordeburuak, arrazoi pertsonalengatik dimititu zuenez, beste batzordekide bati ongi etorria eman zitzaion, Juan Luis Ibarra Robles jaunari, hain zuzen, eta aho batez onartu zen batzordeburu izendatzea.

Batzordearen jardueraren produktibitateari eta edukiari buruzko hausnarketa egin zen. Datuak eskatzeko Udaltzaingoak Koordinatzeko Arlora jotzea erabaki zen, eta harreman instituzionalak egitea.

- **2022.02.24.** Eusko Jaurlaritzaren Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko otsailaren 18ko jakinarazpena jaso zen. Horretan eskatzen zen Batzordeak esku har zezala -EAEPLren 17.b) artikuluan eta horren ondokoetan ezarritako ondorioetarako- Bilbon 2021eko ekainean Ertzaintzako unitate polizial batek egindako bi pertsonen atxilotetari buruzko kontuan.

Batzordeak enkargu hori -1/2022 espedientea- onartzea erabaki zuen, baita erabaki horren berri Bilboko 7 zk.ko Instrukzio Epaitegiari ematea ere, epaitegi horrek instruitutako 701/2021 aurretiazko eginbideekin lotuta.


Bilera horretan ere erabaki zen 1/2022 espedientean lehen ikerketa-jarduketak egitea.

- **2022.03.30** Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Segurtasunaren Sailak, Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritarren ekimenen bulegoak eta Lehenengo lehendakariordearen Kabineteko zuzendariak 1/2022 espedientearen tramitaziorako emandako dokumentazioa jaso zela jakinarazi zen.

Batzordeak Segurtasun Sailari informazio osagarria eskatzea ere erabaki zuen, baita espazio publikoetan egindako atxilotekin eta identifikazioekin lotutako kexei buruzko informazioa ere, Ekinbideren eta Arartekoaren txosten eta argitalpenetan agertzen dena.

- **2022.05.04.** Batzordeko kideei joan-etorri gastuak konpentsatzeari buruzko arauak eta irizpideak onartzea erabaki zen, baita Segurtasun Sailari erabaki horren berri ematea ere.

1/2022 espedientearekin lotuta, Ertzaintzaren zuzendariak 2022ko apirilaren 6an helarazitako jakinarazpena jaso zela jakinarazi zen; eta, horren edukia dela eta, erabaki





zen zehaztaperen batzuk eskatzea, baita dokumentazio gehiago bidal zezala eskatzea ere.

1/2022 espedientearen Arartekoak jarduketa polizialei buruz egindako gomendio batzuen dokumentazioa gehitu zen, baita 7/2011 Gomendio orokorra ere, honi buruzkoa: “Berme-sistema jarduketa eta praktika polizialean”.

- **2022.06.08.** Batzordeburuak eta bi bokalek, 1/2022 espedientearen erabakitakoa betetzeko, 2022ko maiatzaren 26an Ertzaintzaren Erandioko (Bizkaia) zentro polizialean egindako bisitaren berri eman zuten; horretan 1/2022 espedientearen aztertzen den jarduketa polizialari dagokion atestatuaren kopia ikusi ahal izan zuten eta.

Espediente horrekin lotuta erabaki zen, aho batez, Batzordearen txosten-proposamena onartzea, Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari bidaltzeko.

Bilera horretan 2/2022 espedientearen ere aztertu zen eta horren gaineko erabakia hartu zen.

- **2022.07.08** Erabaki zen Segurtasuneko Sailburuaren Kabineteko zuzendariari eskatzea Sailaren Zuzendaritzarekin bilera bat egiteko, informazioa jasotzeko eta 1/2022 txostenaren egindako gomendioaren garapenari buruzko ebaluazioa egiteko aukera emango zuten prozedura bat ezartzeko.

Horrez gain, Batzordearen ebazpenak eta txostenak ele bietan jartzeko eta horiek Gardena-Eusko Jaurlaritzaren gardentasun atarian anonimizatuta argitaratzeko ere eskatu zen.

Berriz ere eskatu zen sinadura elektronikoko korporatiboa eta bilera bat ere eskatu zen Batzordearen funtzionamendu materialari buruzko alderdi batzuen gainean hitz egiteko (segurtasun-kopiak, akreditazioak, baliabide materialak eta Batzordearen postu-kontura sartu ezin izatea).

- **2022.10.10.** Segurtasun Sailak emandako informazioa azaldu zen, Batzordeburutzari sinadura digital korporatiboa emateko egindako tramiteei buruzkoa zein Batzordearen ebazpenak itzultzeko eta anonimizatuzko lanen egoerari buruzkoa, gero Gardena-gardentasun atarian argitaratuko dira eta.

Ertzaintzaren zuzendariak Erandioko zentro polizialeko instalazioak bisitatzeko egindako gonbidapena jaso eta onartu zen, eta erabaki zen instalazio horietan bertan Lehenengo lehendakariordearekin eta Saileko Zuzendaritzarekin lan-bilera bat egitea. Bilera hori egiteko eguna zehaztu zen: 2022ko urriaren 19an.

- **2022.11.14.** Segurtasun Saileko Kabineteko zuzendariari eskatu zitzaion Batzorde honi emateko 1/2022 espedientearekin lotuta eskatutako jardueren egoeraren berri. Espediente horren xede den jarduketa polizialarekin lotuta, erabaki zen espediente horretan Bilboko 10. zk.ko Instrukzio epaitegiak 54/2022 aurretiazko eginbideetan emandako behin-behineko largespen-autoaren kopia sinplea gehitzea.



Erabaki zen Segurtasun Saileko Informatika Zerbitzuari jakinaraztea Batzordearen posta-kontuaren funtzionamendu-arazoak. Batzordeari Gardena web-orrian esleitutako telefono-zenbakiari buruzko azalpen bat emateko ere eskatu zen.

- **2022.12.15.** EAEPKGBren Jardueren Bi Urteko Memoria idazteko eskemaren lehen zirriborroa eztabaidatu eta onartu zen.

3.2 Administrazio eskudunek egindako esku hartzeko eskaerak

Batzordeak, bere lehen bi funtzionamendu urteetan, esku hartzeko bi eskaera baino ez ditu jaso, EAEPLren 17.2 artikulua araberako, hori eskatzeko eskumena daukaten erakundeetako batzuegandik.

a) 2021eko urtarrilaren 18an, Getxoko Udaleko Herritarren Segurtasunerako Ataleko zinegotzi andreak jakinarazi zion EAEPKGBri herritar batek kexa bat aurkeztu zuela Udaltzaingoaren jarduketa batzuei buruz, besteak beste, herritar bat lesionatuta gertatzea eragin zuen atxiloketa bati buruz.


Batzordearen lehen bileran, lehen azterketa bat egin ondoren, informazio gehiago eskatzea erabaki zen, eta, behin informazio hori jaso eta aztertu ondoren, 2021eko martxoaren 3an eskaera tramitera ez onartzea erabaki zen. Erabaki hori hartu zen, batetik Arartekoa ere kexa horrekin lotutako esku hartze bat egiten ari zelako, Arartekoan ere kexa hori aurkeztu baitzen; eta bestetik, Getxoko 4. Instrukzio epaitegia ustezko tratu txar poliziala ikertzen ari zelako. Orduan iritzi zen ez zegoela arrazoirik beste ikerketa bat egiteko epaitegietatik aparte.

b) 2022ko otsailean, Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak Batzordearen esku hartzea eskatu zuen, Ertzaintzako agenteek 2021eko ekainean Bilboko San Frantzisko auzoan egindako bi pertsonaren atxiloketarekin lotuta. Atxiloketa horren ondorioz, agenteetako bik jurisdikzio penalean jarduketak irekita zituzten pertsonen osotasun moralaren aurkako ustezko delitu bategatik. Bilboko 7 zk.ko Instrukzio Epaitegiak 701/2021 aurretiazko eginbideetan emandako 2022ko urtarrilaren 10eko Autoaren kopia ere helarazi zen.

Lehen ere aipatu den bezala, Batzordeak erabaki zuen enkargua onartzea eta Auto horretan jasotako jarduketak aztertzen hastea, iruditzen zitzaizkion jarduketa horien ezaugarriek kalte lezaketela herritarren jarduketa polizialaren inpartzialtasunarekiko eta integritatearekiko konfiantza.

Epaitegi eskudunari jakinarazi zitzaion azterketa horren helburua ez zela diziplina-erantzukizunak edo erantzukizun penalak argitzea; eta horren ondorengo hilabeteetan Batzordeak kasu hori aztertzeko eta ikertzeko lanak egin zituen. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren, Ertzaintzaren zuzendariaren, Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Segurtasunaren Saileko Zuzendaritzaren eta Ekinbideren laguntza eskatu eta jaso zuen.

Aztergai zen kasura mugatuta, Ertzaintzako agenteen ustezko jarduketa irregularren aurreko erantzun-, detekzio- eta prebentzio-neurrien funtzionamendua aztertu zen.





Azterketa horren ondorioz, Batzordeak neurri zuzentzaileak proposatzeko txosten bat eman zuen.

1/2022 espedientean lortutako erantzunak eta txostena Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-ataria den Gardena webgunean kontsulta daitezke, EAEPKGBren jarduerari buruzko atalean. Era berean, Memoria honen hurrengo atal batean, 4.1ean, Batzordearen esku hartze horri buruzko hausnarketa egiten da.

3.3 Herritarrek egindako esku hartzeko eskaerak

Partikularrek esku hartzeko eskaera batzuk egin dituzte. Lehenago azaldu den bezala (2.2.1 atala), Batzordeak ofizioz jarduteko gaitasun mugatua du- bakarrik jarduketa polizial baten testuinguruan pertsona bat hiltzen bada edo larriki lesionatuta suertatzen bada- beraz, oro har, bere eginkizunak burutzen ditu Ertzaintzako eta Udaltzaingoetako arduradunek edo Arartekoak eskatuta. Horrek esan nahi du, normalean, herritarrek aurkezten dituzten kexak edo esku hartzeko eskaerak ezin direla tramitera onartu.

Jarraian, bi urte hauetan jasotako idazkiak agertzen dira:

a) 2021. urtean

- Eskatzaileak azaltzen zuen ez zegoela ados Bilboko Udaltzaingoko agente batek trafikoko gertakari batean egindako jarduketarekin, ezta Udal horretako Herritarren Segurtasunerako Sailak hasierako kexari emandako erantzunarekin ere (2/2021 espedientea).
- Herritar batek salatzen zuen Ertzaintzako bi agente, Donostiako Amaratik Loiolara bitarteko errepedean, polizia-auto bat, bere ustez, modu ezegokian gidatzen zebiltzala (3/2021 espedientea).
- Bizkaiko SOS Arrazakeria elkarteak galdetzen zuen ea Batzordeak GKE horrek eskatuta jardun zezakeen, poliziek eskubideak urratzearekin lotutako salaketak direla eta (4/2021 espedientea).
- Pertsona batek Muskizko Udaltzaingoaren jarduketa baten gaineko kexa azaltzen zuen. Txakur baten harrapaketarekin lotutako jarduketa izan zen, eta bi emakume txakurra paseatzen zebiltzala gertatu zen (5/2021 espedientea).

b) 2022. urtea

- Herritar batek kexa azaltzen zuen trafiko arloko zehapen bategatik, baina eskatzaileak ez zuen argitzen zein administraziok jarri zion (2/2022 espedientea).

Kasu horietan guztietan EAEPKGBk erantzun indibidualizatuak bidali dizkio erreklamatzailerako bakoitzari. Erantzunetan erreklamatzailerari azaldu zaie zergatik ezin duen Batzordeak esku hartu eta, hala badagokio, adierazi zaie zein instantziatara jo dezaketen. Idazki horiek, behar bezala anonimizatuta, Gardena-Gardentasun atariko webgunean kontsulta daitezke.



3.4 Erakunde-harremanak:

Batzordeak egoki iritzi dio bere kideetako bat ekitaldi hauetara joateko gonbidapena onartzeari:

- 2022.03.28. Ertzaintzaren sorreraren 40. urteurrena.
Bilbao Exhibition Centre. BEC. Barakaldo.
- 2022.06.05. ETAk hildako agenteak eta zerbitzu-egintzan hildako agenteak omentzeko ekitaldia.
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia. Arkauti.
- 2022.09.20. USEC Bilbao Congress: Segurtasuna, Larrialdiak, Mugikortasuna.
Euskalduna jauregia. Bilbao.
- 2022.10.19. Lan-bilera Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarekin,
Segurtasuneko sailburuordearekin, Ertzaintzaren zuzendariarekin eta Ertzaintzako buru
batzuekin. Ertzain-etxea. Erandio.
- 2022.11.23. Ertzaintzaren 30. promozioko eta udaltzaingoekin batera egindako 2. promozioko
kideei kredentzialak emateko ekitaldia.
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia. Arkauti.

3.5 Dibulgazio-jarduerak

Batzordea eratu zenetik, EAEPKGBko kideek beren eginkizunen eta lanaren berri emateko dibulgazio-jarduera hauetan parte hartu dute:

a) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian. Arkauti (Vitoria-Gasteiz).

- 2021.11.24. Komisarioen prestakuntza-ikastaroa: Batzordeari buruzko informazio zehatza eman zen.
- 2022.05.19. "XXI. mendean polizia izatea" jardunaldia. Hitzaldia: Zergatik da beharrezkoa gardentasuna eredu polizial berrian?
- 2022.06.28. Ertzaintzaren Komisariorde kategorian sartzeko ikastaroa. Gaia: EAEko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea.
- 2022.09.14. Ertzaintzaren Komisariorde kategorian sartzeko ikastaroa. Gaia: EAEko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea.
- 2023.01.23. Bilboko Udaltzaingoaren Komisariorde kategorian sartzeko ikastaroa. Gaia: EAEko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea.



b) Beste erakunde batzuetan

- 2022.11.25. Sevillako Unibertsitatea. Instituto Andaluz. Kriminologiari buruzko interunibertsitarioa. “Eraberritze polizialari buruzko jardunaldia: beharra, erronkak eta aukerak” izeneko jardunaldian parte hartu zen.

4. Lehen bi urtekoari buruzko hausnarketa kritikoa

Bi urte hauetako jarduera azaldu ondoren, jarduera hori egiteko moduari eta lortutako esperientziari buruzko hausnarketa egin nahi izan dugu. EAEPKGBren araudi erregulatzailaren alderdi batzuk berrikusteko beharrari buruzko hainbat hausnarketa ere plazaratuko ditugu.


4.1 Funtzionamendu-esperientziari buruzko hausnarketak

2.3 atalean azaldu den bezala, EAEPKGB martxan jartzeko prozesuan zailtasun batzuk egon dira, eta horrexegatik, hain zuzen, nabarmendu beharreko lehen alderdi positiboa da Batzordeak funtzionatu egin duela eta denboran iraun duela, aldian-aldian bilerak egin baitira eta dokumentu asko sortu baitira, EAEPKGBko kideek beren baliabideak erabilia egindakoak.

Ofizioz jarduteko mugak daudenez eta erakunde eskudunengandik esku hartzeko bi eskaera baino jaso ez direnez, EAEPKGBk ezin izan du asko egin. Lehen eskaera Getxoko Udalak bidali zuen, Batzordea eratzeko unean, eta Batzordearen iritzia izan zen ez zegoela esku hartzerik. Agian Batzordeak ez zuen erantzun bera emango, eskaera gaur egun jaso balu. Une horretan Batzordeak epaitegia eta Arartekoa aztertzen ari ziren alderdiei baino ezin izan zien heldu eta, beraz, praktika polizialean hobetzeko moduko alderdirik zegoen ere ezin izan zuen aztertu.

Batzordeak uste du “indarra erabiliz egindako atxiloketaren” kasuan (1/2022 espedientea, 3.2 atalean aipatutakoa) agerian geratu dela EAEPKGBk legeak ematen dizkion eginkizunak betetzeko gaitasuna daukala eta, horrela, Euskadiko Poliziaren barruko kontrolen eraginkortasuna handitzen lagun dezakeela.

Batzordeak esku hartze mugatua egin zuen; informazio batzuk jasotzeaz gain, funtsean, Ertzaintzako bi agentek egindako bi pertsonaren atxiloketarekin lotutako atestatura sartu baitzen; izan ere, atxiloketa horretan indarra erabili zuten eta horrek eragin zuen bi agenteen aurkako kausa penala irekitzea (Bilboko 7 zk.ko Instrukzio Epaitegiaren Autoa). Atestatua Ertzaintzaren Erandioko egoitzan irakurri zen, ez atestatu hori egin zuen Ertzain-etxean; jatorriko dokumentua ere ez zen irakurri, horren kopia anonimizatuak baizik, atxilotutakoen izenak eta argazkiak kenduta zituzten kopiak. Zehetasun horiek jasota utzi nahi ditugu, EAEPKGB, esperientzia lortu ahala, jarduteko jarraibideak lantzen doalako, etorkizunari begira Batzordearen esku hartzeak hobetzen joateko, eta hobekuntza horietako batzuk izan daitezke jatorrizko dokumentuetara sartzea edo atestaturik egin den egoitza polizialean ikustea.





Aldi horretan, atestatua irakurtze hutsarekin egiaztatu ahal izan gehituen jarduketa polizialari buruzko barruko kontroletan beraietan gabeziak zeudela, baita praktika polizialean hobetzeko moduko alderdi batzuk ere. 1/2022 espedientearen egindako txostenean (Gardena – Gardentasun atariaren webgunean kontsulta daiteke) azalduta daude EAEPKGBren gogoetak eta hobekuntza-proposamenak, hemen transkribatuta daudenak:

1. Kode deontologikoari eta praktika onei buruzko prestakuntza poliziala – hasierakoa eta etengabea- sendotzea, eta nabarmentzea autokontrolaren beharra esku-hartze polizialean inplikaturako pertsonen errespetu faltan aurrean, baita jarduketa horietan gerta litezkeen tentsio-egoeren aurrean ere. Horrez gain, agenteengan sustatu behar da lankideen artean ezinbestekoa den konfiantzak eta leialtasunak jarduketa irregularretan konplizitatea edo horiek ezkututzea eragin behar ez dituztelako uste sendoa.

2. Pertsonak leku publikoetan atxilotzeko protokoloak berrikustea, horietan jarduketa polizialaren gaineko kontrol objektiboak sartzeko, eta kontrol horiek derrigor bete beharrekoak izan daitezela atestatutan jasotzen diren jarduketetan.

3. Jarduketa polizialean gorputzeko kamera subjektiboak modu orokorrean erabil daitezela lortzeko aurrerapausoak ematea; jarduketa polizial horien barruan pertsonak atxilotzeko jarduketak ere sartzen dira, baita indarra erabili beharko dela aurreikusten den edo, aurreikusitako gabe, gerora indarra erabili beharra gertatzen den jarduketak ere.

4. Norberak zein taldeak egindako jarduketaren gaineko analisi kritikoa egiteko dinamikak sustatzea. Ertzaintzako kideek egindako ustezko abusu edo irregulartasunak salatzeako kanalak ematea eta ezkututze-jokabideei jarraitzea (EAEPL 33 eta 138.3 art.).

5. Agintaritzaren agenteen aurkako ustezko atentatu-jarkitze- edo desobedientzia-delituei buruzko atestatuak egiteko protokoloak hobetzea eta, bereziki, atxilotetan indarra erabili behar izan den kasuetarako. Horrelako jarduketetan funtzionario polizialak modu pertsonalean inplikaturako egoten direnez – biktimak eta lekukoak dira aldi berean- ezinbestekoa da egintzak deskribatzean objektibitatea sendotzea eta horregatik neurri espezifikoak hartu behar dira (esaterako, agente esku-hartzaileek deklarazioa bakoitzak bere aldetik ematea).

6. Kode deontologiko polizialaren aurkako jarduketa izan delako zantzuak daudenean, barruko ikerketa ofizioz egin dela (aurretiazko informazioa edo diziplina-espedienteak) egiaztatzea eta agintaritzaren judizialari ikerketa penala eragin dezaketen egintzen berri ematea. Egintza berberen gainean jarduketa judizialak eta diziplinazkoak daudenean, horiek amaitu beharko dira ikertzeko arrazoizko posibilitate guztiak agortu arte, baina ez da ebaizpenik hartuko epai irmoa ematen den arte.

7. Arartekoaren 7/2011 Gomendio orokorrean jasotako gomendioak bete daitezela sustatzea, hauei buruzkoak: “Berme-sistema jarduketa eta praktika polizialean”, bereziki, praktika polizialak berrikusteko mekanismoak ezartzeko beharrari buruzkoak; izan ere, esku artean daukagun kasu honek gabezia batzuk utzi ditu agerian.



Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak 2022/12/29an igorritako idatziaren bidez EAEPKGBri azaldu zion proposatutako neurri zuzentzaileak betetzera zuzendutako jarduketetatik zein zeuden eginda eta zein zeuden adostuta etorkizunean egiteko. Dokumentua Gardena webgunean kontsulta daiteke, baina horren edukia honela laburbildu daiteke:

1. Ertzaintzaren Zuzendaritzak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari eskatu dio prestakuntza-edukiak berrikusteko, kode deontologikoari eta praktika onei buruzko prestakuntza indartzeko. Helburu hori lortzeko, Akademiak EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrarekin hitzarmen bat sinatu du. Rights International erakundearekin ere prestakuntza mailan lankidetzan esparru bat ireki du.
2. Atxiloketa-prozesuari buruzko 20 eta 26 zerbitzu-aginduak aldatu dira eta horien barruan sartu da nola jokatu behar den atentatu-, desobedientzia- edo jarkitze-delituengatik egiten diren atxiloketetan edo indarra erabiltzen den atxiloketetan. Betebehar batzuk ezarri dira, hala nola, egitatei buruzko grabaketa guztiak epaitegira bidaltzekoa edo agente esku-hartzaileak nor bere aldetik hartzeko betebeharra, gertatutakoa argi eta zehatz kontu dezatela.
3. Ekintza bereberei buruz jarduketa judizialak zein diziplina-jarduketak daudenerako, barruko prozedurak berrikusi dira, etorkizunean barruko ikerketarako arrazoizko aukera guztiak erabil daitezela.
4. Ertzaintzako agenteak banakako kamerez hornitzeko proiektua sustatzen jarraitzen da.
5. Arartekoak “Berme-sistema jarduketa eta praktika polizialean” 7/2011 Gomendio orokorrean jasotako gomendioak Ertzaintzaren kudeaketa-foeetan zabaltzea erabaki da.

Sailak emandako erantzuna aztertuta, Batzardeak ondorioztatu zuen proposamenen onartze- eta betetze-maila handia zela eta, era berean, iradokitako hobekuntza-ildoetan aurrera egiteko neurri eta konpromiso zehatzak hartzea modu positiboan baloratu zuen. Dena den, EAEPKGBri egokia iruditu zitzaion hiru alderdi zehatzi buruz informazio gehiago emateko eskatzea, eta horren erantzuna 2023ko otsailaren 22an jaso zuen. Jarraian laburtu dira planteatutako kontuak eta jasotako erantzuna:

a) Batzardeak gogorarazi zuen zein garrantzizkoa zen 4. gomendia, jarduketa polizialen gaineko autokritika sustatzeari eta ustezko irregularitasunak salatzen diren kanalak errazteari buruzkoa, horri ez baitzizaion berariazko erantzunik eman.

Horri dagokionez, Barne Gaietarako Burutzak (BGB) proposatutako neurri batzuen berri eman ziguten, esaterako, indarra erabiliz gero, hori lehen unetik “Euskarri jarduketan” jasota geratzeko betebeharra, hori deskribatzean adierazpen generikoak erabili gabe. Burutza horrek indarra erabili den jarduketa polizialen jarraipena eta azterketa egiteko konpromisoa hartu zuen eta eskatu zuen unitateek beraiek ere kontrola zezatela; zuzeneko arduradunen bidez, horiek egindako guztia eginbide polizialean zehatz islatuta agertzen dela egiazta dezakete eta. Azkenik, Barne Gaietarako Burutzak proposatu zuen zabaltzea eta behin eta berriz errepikatzea zein erantzukizun penal edo diziplinazkoak ekar ditzaketen ez-zilegiak ezkutatzeko jokabideek.



b) Ertzaintzako agenteak banakako kamerez hornitzeko proiektuaren betetze-mailari buruzko informazioa eskatu zen. Kontratazio-prozesuak aurrera jarraitzen duela esan ziguten, baina lizitazioa azarotik etenda dago enpresa lizitatzailerik bat baztertzearen aurkako errekurtsio batengatik.

c) Batzordeak jakin zuen Bilboko 10 zk.ko Instrukzio Epaitegiak largespena eman zuela, 1/2022 espedientean aztertzen zen jarduketa polizialean esku hartu zuten Ertzaintzako bi agenteren aurkako eginbide penaletan. Horregatik, egon litezkeen diziplina-arloko erantzukizunak argitzeko egindako barruko ikerketaren amaierako emaitzari buruzko informazioa eskatu zuen.

Horri erantzuteko, Barne Gaietarako Burutzak EAEPKGBri idazki bat helarazi zion; eta horretan egindako ikerketak zehazten ziren eta azken emaitza honen berri ematen zitzaion: burutza horrek *“ulertzen du ezin dela egiaztatu ikertutako jokabideak diziplina-ohartarazpena behar duenik”*.

Batzordeak Segurtasun Saitetik lortutako erantzunen balorazio positiboa egiten du eta ulertzen du bere iradokizunen onartze- eta betetze-maila altua dela. Argi dago proposatzen diren aldatetako batzuek prestakuntzari eta praktika polizialei eragiten dietela, eta horregatik nahitaezkoa izango da etorkizunean jarraipena egitea, ikusteko praktikan aplikatu diren eta kultura polizialean integratu diren.

4.2 Araudi-diseinuari buruzko oharra

EAEPKGBk aurrekari instituzionalik ez dauka, ez Euskal Autonomia Erkidegoan, ezta Espainiako sektore publikoan ere. Jarduketa polizialaren gaineko barruko kontrolen funtzionamendua kanpotik berrikusteko kide anitzeko organo hau ex novo sortu du Eusko Legebiltzarrak; eta horregatik ulergarria da EAEPKGBren lege-erregulazioak araudi-hutsuneak eta -gabeziak izatea, funtzionamenduko lehen bi urtekoan azaleratu direnak.

Azpimarratu behar da jarraian datozen oharretako batek ere ezin dituela lausotu Euskadiko legegileak zaintza-erakunde hori sortzean izan dituen meritua eta aukera, erakunde horren helburua baita herritarrek jarduketa polizialaren gaineko kontroletan duten konfiantza handitzea eta, horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren legitimitate soziala indartzea.

4.2.1 Gardentasuna dela eta

Lege-hutsune deigarriena da “gardentasuna”, gardentasun poliziala, sartu dela lege-arauaren enuntziatuan- “Kontrol eta Gardentasun Mekanismoak”- zein EAEPLe 17. artikularen bidez sortutako erakundearen izenean – Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea-; legegileak Batzorde horri esleitutako eginkizunen edukiaren, barruan, ordea, ez.

Jarduera publikoaren gardentasunak, Espainiako 19/2013 Legeak arautzen duenak, botere publikoen jarduketari dagokion printzipio bat definitzen du, honela zehazten dena: botere publikoek



informazio publiko garrantzitsua aldizka argitaratzeko betebeharrak daukate, eta herritarrei informazio publiko hori irispidean izateko eskubidea esleitzen zaie. Erakunde juridiko honi buruzko araudian, ohikoa da betebeharrak hori betetzen dela eta herritarrek horrekin lotuta duten eskubidea errespetatzen dela bermatzearen ardura agintaritzaren independente eta autonomoari esleitzea.

Gardentasun-printzipioa 2000ko abenduaren 7an aldarrikatutako Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunaren 41 eta 42. artikuluetan dago, geroago 2007ko Lisboako Tratatuan integratu zen, eta 2007ko Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan ere agertzen da eta Espainiako Konstituzioaren 20.1.d), 105.b eta 129.1 artikuluetan ere bai.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioari aplikagarri zaizkio eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoak arlo horren gaineko eskumena dauka, eta arlo horren gaineko legegintza-sustapena Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo programan aurreikusten da, 148 konpromisoan: *“(A) Herritarren parte hartzerako eta gardentasunerako legea onestea, administrazioaren herritarrekiko gardentasuna bermatzeko, herritarren parte hartzea sustatzeko gai publikoetan eta gobernu-programa betetz garatzen diren ekintzen eta ekimenen kontuak denbora errealean ematea ahalbidetzeko”*.

Era berean, Segurtasun Administrazioak jarduketara polizialeko gardentasun-printzipioarekin daukan konpromisoa Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrean (2020/2025) islatzen da; 9. ildo estrategikoan hauxe agertzen baita: *“Herritarrei gardentasuna eta kontuak ematea bermatzeko kontrol eta komunikazio mekanismoak ezartzea” (L9-9.2) eta “Informazio mekanismo bat eta kontuak emateko mekanismo bat ezartzea. Mekanismo horren bidez, segurtasunaren bilakaerarekin lotutako datuak argitaratuko dira, eta, unean-unean, interes orokorrekoak izan daitezkeen jarduerari buruzko azalpenak emango dira” (L9.2)*.


Hala ere, EAEPKGBri legez ezartzen zaizkion eginkizunen artean ez da berariaz agertzen jarraitzea, ebaluatzea edo bermatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia erakundeak segurtasunarekin lotutako interes orokorreko datuak argitaratzeari dagokionez dituen eginbeharren betetze-maila; ezta informaziora sartzeko eskubidearen asetze-maila kontrolatzea ere.

4.2.2 EAEPKGBren eginkizunak direla eta

Batzordearen bi urte hauetako jardueraren aztertzean argi geratu denez, Batzordeak, bere eginkizunei buruzko gaur egungo araudiaren ondorioz, jaso dituen esku hartzeko zazpi eskaeratik bakar batean jardun ahal izan du.

Gure iritziz, Batzordearen eginkizunei buruzko araudi-konfigurazioa aldatu beharko litzateke horien edukia zabaltzeko, bereziki, ofizioz jarduteko aukerari dagokionez.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, ofizioz jarduteko aukera mugatuta dago; izan ere, Batzordeak ofizioz eta nahitaez aztertzen ditu intzidentek, baldin eta poliziaren esku-hartze baten





testuinguruan edo zaintza polizial bat bitartean pertsona bat hiltzen bada edo larriki lesionatuta suertatzen bada.

Batzorde honen ustez, ofizioz baina ez nahitaez jarduteko gaituta egon beharko luke, aztertzeo eginkizunarekin, eta jarduteko erabakiak Batzordearen arauzko irizpidearen menpe egon beharko luke, baldin eta Ekinbidera zuzendutako keak eskubideen urraketari buruzkoak badira edo polizia jarduketekin lotutako elementuak behin eta berriz errepikatzen badira eta horrek kezka handia eragingo balu jokabide edo praktika polizialek herritarren konfiantzan izan lezaketen eraginagatik.

Era berean, Batzordeak erakundeek eskatuta jarduteari dagokionez, kontuan hartzekoa da Batzordearen jarduketa sustatu ahal izateko erakunde-legitimazioa Eudel- Euskadiko Udalen Elkarteari ere zabaltzeko proposamena, gaur egun legitimatuta dauden gainerako agintaritzen baldintza berberetan – Segurtasun Sailaren titularra edo kasuan kasuko udal agintaritza edo Arartekoa-.

4.2.3 Euskal Sektore Publikoaren Legera egokitzea


Ezin da aipatu gabe utzi EAEPKGBren indarreko lege-araudia Euskal Sektore Publikoaren legera egokitu behar dela. Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legeak 10.3 artikuluan ezartzen duena bete behar izateak aukera ezin hobea eskaintzen du Batzordearen araudian aurrerapausoak emateko, gutxienez, gai hauei dagokienez:

a) EAEPKGBren funtsezko ezaugarriak diren independentziaren eta autonomia funtzionalaren bermeen eduki juridikoa zehatzago definitzea. Zehazki, Batzordea polizia-jardunaren barruko kontrolak berrikusteko administrazio-agintaritza independente gisa konfiguratzek ekarri behar du Batzorde horri legez esleitzea bere organizazio- eta funtzionamendu-estatutua formulatzeko gaitasuna, baita baliabideen aurrekontu-kudeaketa definitzeko eta horretan parte hartzeko eskumenak ere, orain arte EAEPKGBk ez baititu horiek eskura izan.

b) Era berean, EAEPKGBk Euskal Autonomia Erkidegoko polizierekiko eta Segurtasun Sailarekiko autonomia funtzionala izango duela bermatzeko, Batzordearen ofizioz jarduteko eskumenak handitu behar dira, Batzordea ez dadin zorrotz-zorrotz Segurtasun Administrazio agintarien eskaera formalaren menpe egon, eta jarraitu beharreko jarduera-ildoaren programazioaren eta helburuen definizioaz erabaki ahal izan dezan.

c) Ildo horretatik, EAEPKGBren eskumen-atribuzioen eta gaitasun juridikoaren erregulazioaren arau bidezko garapenaren ondorioz, Batzordearen ingurune juridikoak hobeto definitu beharko dira kanpoko kontrolerik independenteak diren beste erakunde batzuekiko, bereziki Arartekoarekiko.

d) Nabarmendu behar da EAEPKGBren eskumenen arloko eduki juridikoa ez datorrela bat Erakundearen izenak berak aldarrikatzen duen jarduketa polizialaren gardentasun-eginkizunarekin.





5. Ondorio gisa: Bigarren bi urtekorako bost helburu

5.1 EAEPKGBren beraren, bere eginkizunen eta egindako lanaren publizitatea eta zabalpena egiten laguntzea

EAEPKGBren lehen bi urteko ibilbideak erakutsi du batzorde hori sortzea egokia izan dela eta Eusko Legebiltzarraren 7/2019 Legeak esleitutako helburu instituzionalak bideragarriak izan direla.


Gainera, 1/2022 txostena zein txosten horretan jasotako jarduketa polizialaren kontrola hobetzeko zazpi proposamenak egitean lortutako esperientziak erakutsi du Batzordeak dinamika proaktiboa izan behar duela, jardutera bultzatzeko eskumena esleituta daukaten erakundeek ezagutu dezaten. Gainera, ezagutarazte horrekin batera lankidetzara ere eskaini beharko litzateke, herritarrek jarduketa polizialaren gaineko kontrolen neutraltasunean eta objektibotasunean daukaten konfiantza eta legitimitatea sendotzera bideratutakoa.

Horri erantzuten dio, hain zuen, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 21. artikulua, hauxe ezartzen baitu: “argitara emango da Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea egon badagoela, eta, horrekin batera, zabalkundea egingo da, eginkizunen, funtzionamenduaren eta egindako lanen berri emateko”. Dena den, egia da manu horrek ez duela zehazten zein subjektu instituzionali dagokion lege-betebehar hori betetzea.

EAEPKGB administrazio-agintaritzaren independentea denez eta legez polizia-erakundearekiko eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailarekiko autonomia funtzionala ezarrita duenez, ulertu behar da Batzorde horri dagokiola betebehar hauek bete ahal izateko behar diren baliabideak eta helburuak zehazteko ekimena: Batzordea egon badagoela, zein eginkizun dituen eta zer lan egin dituen argitara ematea eta zabaltzea.

Batzordeak, erakundearen bigarren bi urteari begira, zeregin hori erakundearen helburuen taulan sartzea nahi du; eta horrez gain, ofizioz jarduten eta erakunde eskudunek eskatuta, horrelako eskaerak jasoz gero, jarduten jarraituko du.

Hala ere, jakin badakigu gaur egun Batzordeak esleituta dituen eginkizunen edukia zabalduko balitz, Batzordearen eskura gaur egun baino antolaketako eta aurrekontuko baliabide gehiago eta baliabide tekniko gehiago jarri beharko liratekeela, behar bestekoak izateko. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 18.5 artikulua hauxe ezartzen du: “Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan partida espezifiko bat ezarriko da, Batzordeak bere lanak egin ahal izateko behar bestekoa”.





5.2 Ekinbiderekiko artikulazio instituzionalerako proposamen bat prestatzea eta gauzatzea

Ekinbide-Seguratasun publikoaren sistema hobetzeko herritarren ekimenen bulegoa, Eusko Jaurlaritzaren 181/2015 Dekretuaren bidez sortutakoa, Batzordearekin batera agertzen da EAEPLn, jarduketa polizialaren gaineko kontrol-mekanismo gisa.

Ekinbideren eginkizuna ekimenak jasotzea da, kexa, iradokizun edo esker-emate moduan, hauek ematen dituzten zerbitzu eta prestazioekin edo burutzen dituzten jarduketekin lotuta: Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoek, tokiko administrazioen menpeko udal zainzaileek eta mugikortasun agenteek, larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko euskal sistemaren barruko zerbitzuek, eta segurtasun publikoaren arloko agintariek eta koordinazio-, aholkularitza- eta parte hartze-organoek.

Ekinbidek urtero Eusko Legebiltzarrean aurkezten dituen txostenetan argi ikusten da ekimen gehienak jarduketa polizialei buruzkoak izaten direla. Izan ere, argitaratutako azken memorian, 2021. urtekoan, tramitatzeko onartu ziren 337 ekimenetatik – 281 kexa- bat ez beste guztiak ziren jarduketa polizialei buruzkoak.


Ekinbideren eta EAEPKGBren arteko lotura instituzional nagusia Ekinbideren eginkizun hau da: aurkeztutako kexa guztien jarraipena egitea, behin eta berriz errepikatzen diren elementuak dauden aztertze eta horien kausak ikertze, eta azterlanak eta proposamenak egitea segurtasun publikoaren sistemako zerbitzua hobetzeko neurriak hartzeko.

Horrexegatik, hain zuzen, jasotzen da memoria honetan komenigarria izango litzatekeela Batzordea, bere aztertze eginkizunari dagokionean, ofizioz jardun ahal izateko legez gaituta egotea, baldin eta Ekinbiden jasotzen diren eskubide-urraketekin lotutako kexen ondorioz edo jarduketa polizialean behin eta berriz errepikatzen diren elementuak detektatzearen ondorioz, kezka handia sortzen bada, jokabide edo praktika polizialek herritarren konfiantza kaltetu dezaketelako.

5.3 EAEPKGB tokiko administrazioen eta agintaritzen eremuan aurkezteko kanpaina

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik 81ek udaltzaingo-zerbitzuren bat daukate. Udaltzaingo horiei dagozkien udal-agintaritzek, horien neurria edozein dela ere, legez ezarrita daukate EAEPKGBren jarduketa sustatzeko eskumena.

Ekinbidek argitaratutako memorietan ikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingo-zerbitzuei buruz oso ekimen eta kexa gutxi jasotzen direla. Hori bat dator memoria honetan islatzen den Batzordeari buruzko ezagutza urriarekin.





Hortaz, komeni da Batzordeak tokiko administrazioen eta udal agintaritzen eremua lehentasunezko helburutzat hartzea, Batzordea egon badagoela eta zein funtzio dituen zabaltzeko. Helburu hori beste proposamen honen osagarria da: Batzordearen jarduketa sustatu ahal izateko erakunde-legitimazioa Eudel- Euskadiko Udalen Elkarteari (EUDEL) ere zabaltzeko proposamena.

5.4 Arartekoarekiko erakunde arteko harremanetarako proposamen bat lantzea

Aipatu den bezala, Euskal Poliziako kidegoen (Ertzaintza eta Udaltzaingoak) agintaritza arduradunek modu formalean eska dezakete EAEPKGBren esku hartzea. Horretaz gain, EAEPLe 17.2 artikulua ezartzen du Arartekoak ere eska dezakeela Batzordearen esku hartzea. Hala ere, erakunde horren izaera zein den kontuan hartuta, ematen du hark eskatzen duen esku hartzeak eta segurtasun arloko agintaritza eskudunek eskatzen duten esku hartzeak ezin dutela helburu bera izan. Segurtasun arloko agintaritza eskudunek EAEPKGBri esku hartzeko eskatzen diotenean, haien helburua da kanpoko organo batek, jarduketa poliziala gertatu den erakundearekiko independentea denak, zalantzan jarri den jarduketa berrikustea. Argi dago hori ezin dela Arartekoaren helburua izan; izan ere, haren funtzioa, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen funtzionamenduaren legezatasuna kontrolatzea da eta horrek polizia-zerbitzuak barne hartzen ditu.

Arartekoaren eta EAEPKGBren artean desberdintasun nabarmenak badaude ere, bi erakundeen funtzioen artean antzekotasun batzuk ere daude. Hori dela eta, pentsa dezakegu Arartekoaren esku hartze eskaerak funtsean lankidetzaren proposamenak izango direla. Gaur arte ez da horrelako eskaerarik egon, baina Batzordea, ahal duen neurrian, Arartekoarekin lankidetzaren aritzeko guztiz prest dago, eta horregatik Batzordearen iritziz, komeniko litzateke bien arteko komunikazio-eta koordinazio-kanal egonkor bat ezartzea, etorkizunean izan litezkeen lankidetzak errazteko.

Horretaz aparte, esan liteke bi erakundeen artean nolabaiteko zeharkako sinergia edo lankidetzaren egon dela, Batzordeak bere 1/2022 txostenean Arartekoaren 2011ko gomendio orokorra erabili baitu, polizia-jarduketarako eta -praktiketarako berme-sistemari buruzkoa, eta horren garrantzia eta indarraldia azpimarratu baititu. Ertzaintzak, horri emandako erantzunean, gomendio horretako edukia barruko kudeaketarako foro guztietan zabaltzeko konpromisoa hartu du, bereziki, atxilotetari buruzkoa; eta hori oso modu positiboan baloratu du EAEPKGBk.

5.5 Arkautiko Polizia Akademiarekin prestakuntza arloan lankidetzaren aritzeko proposamena

Memoria honetan jasota dago Batzordeko kideek, Arkautin (Araba) dagoen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak gonbidatuta, egin dituzten prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak. Hain zuzen, zentro horretako Zuzendaritzaren gonbidapenari erantzunez, jardunaldi eta prestakuntza-ikastaroetan parte hartu dugu eta gure esku hartzeen helburua izan da EAEPKGB ezagutaraztea, baita Batzorde hori Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kode Deontologikoan adierazitako



etika polizialarekin eta jarduketa polizialaren printzipioa den gardentasunarekin nola artikulatzen den ere.

Bereziki eskertzeko modukoa iruditzen zaigu Akademia horrek Ertzaintzako eta Bilboko Udaltzaingoko komisariorde kategorian sartzeko ikastaroetan parte hartzeko eman digun aukera.

1/2022 txostenean, Batzordeak azaldu ahal izan du zein garrantzizkoa den Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideek kode deontologiko polizialean jasotako balore, printzipio eta araei buruzko prestakuntza jasotzea, jarduketa polizialeko bermeen lege-sistema eraginkorra izan dadin.

Horregatik, hurrengo bi urtekoari begira, Batzordeak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritzara jotzeko asmoa dauka, aipatutako hiru arlo horiei buruzko prestakuntzari dagokionez lankidetzan aritzeko.

